


EHU appStore

“**EHU appStore**” UPV/EHUK eskainitako aplikazio multzo bat da. Aplikazio hauek, Jukebox teknologia erabiliz birtualizatuta daude. Eta Informazioaren eta Teknologien gerenteordetzak konfiguratu eta eskuratzen dizkizu.

“EHU appStore” erabiltzeko jarraibideak

1. Klik bikoitz “**EHU appStore**”.
2. Erabili nahi duzun aplikazioa bilatu (erosoena bilatzeko gunea erabiltzea da: “Search”).



3. Web orrian, aurkitutako aplikazioaren “**Launch**” botoia sakatu.
4. Lehiotxo bat agertuko zaizu kargatzen dagoela adierazten. Aplikazioaren tamaina dela eta, laburra edo luzeagoa izan daiteke itxaronaldia.
5. Aplikazioa erabiltzeko prest dago eta hasi menuan izango dituzu ohiko sarbideak (beste edozein aplikaziotan bezala).

“EHU appStore” erabiltzeko gomendio orokorrak

IKT gerenteordetzak zure dokumentuak gordetzeko BILDU zerbitzua erabiltzeko gomendatzen dizu. BILDUn biltegitratutako dokumentuak UPV/EHUko posta elektronikotik dituzu eskura. Era berean, zure BILDUra sarbide zuzenak izango dituzu UPV/EHU erabiltzaile eta pasahitza eskatzen dituzten ordenagailuetan.

BILDU zerbitzuari buruzko informazio gehiago:

www.ehu.eus/bildu

BILDU zerbitzua aktibatu:

<https://www.ehu.eus/sincronizacion/index.php?lang=eu>


“EHU appStore” erabiltzeko gida



1. Klik bikoitz **“EHU appStore”** edo <https://ehuappstore.ehu.eus> –era sartu nabigatzaile batean.
2. Zure UPV/EHUko erabiltzaile eta pasahitza sartu.



3. Eskura dituzunen artean, erabili nahi duzun aplikazioa aurkituta **“Launch” botoia sakatu**. Aplikazio berri bat behar izatekotan, EAZra bideratu zure eskaera (154400 edo cau@ehu.eus).



4. **“Cloudpaging Player”** leihoan ikus daiteke zelan doan prozesua. Aplikazioaren tamaina dela eta laburra edo luzeagoa izan daiteke itxaronaldia.



5. Aplikazioa lehenetsitako sarbidean irekiko da. Dagozkion beste sarbideak edo aukerak, Windows-en hasi menuan izango dituzu.